



ORDAINKETAK PLANIFIKATZEKO PLANAK

Planak	Idiazabalgo udaletxean	Zertarako	Arduraduna
Kutxako plana	Bai	Udal kutxan dirutan sartutakoa azaltzen du, besteak beste: eguna, mugimendua (abonu zein kargu eta horren ondoriozko saldoa) (Nagusiki, I, II eta III kapituluetakoko sarrerak: fotokopiak, txartelak, besteak)	Diru-bilketa
Funtsak erabiltzeko plana	Ez	Ordainketen lehentasuna finkatzen du (legezko lehentasuna daukate honako hauek: zorren ordainketa, langileria-gastuak eta aurreko ekitaldietako gastuak; berandutze-interes gastuak). Bestalde, ordainketen batez besteko epea gaindituz gero, funtsak erabiltzeko derrigorrezko planak jaso behar ditu hilabete bakoitzean erabili beharreko zenbatekoa eta hainbat konpromiso eta neurri buruzko azalpena: horien artean, gastuak murrizteko zein sarrerak igotzeko edo kobrantzak zein gastuak kudeatzeko.	Diruzaintza
Finantza-saneamendu-plana	Ez	Aurrezki garbia negatiboa denean, korporazioaren osoko bilkurak finantzak saneatzeko plan bat onartu beharko du, gehienez ere hiru urteko epean burutu beharko dena, eta baimen-eskabideari erantsi. Plan horretan kudeaketa, zerga, finantza eta aurrekontuen arloko neurriak hartuko dira, gutxienez erakundearen aurrezki garbi negatiboa zerora doitzeko aukera emango dutenak. Epe berean aurreko berehalako ekitaldiko gerakin negatiboa saneatzeko baldintza gehigarriak jaso beharko ditu plan horrek. Etorkizunean beste txosten batzuk egiteko baimenak emateko orduan kontuan hartuko da planaren betekizuna	Kontu-hartzailletza
Doiketa-plana	Ez	Plan honek bermatzen du egoera zehatz batean (hau da, zorrak amortizatze epealdian), nahiko diru-sarrera bilduko direla gastu arruntak eta urteko amortizazioari aurre egiteko; halaber, sarrera arruntan prebisioren zuhurtziari eta zerbitzu publikoen kosteari eta horren finantzazioari buruzko informazioa jaso behar du.	Kontu-hartzailletza
Plan ekonomiko-finantzarioa	Ez	Aurrekontu egonkortasunaren, finantza-iraunkortasunaren eta gastu-arauaren helburuak betetzen ez direnean	Kontu-hartzailletza